

ARBONAKo Berriak

ZK.22

2023

Desiorik
Onenak

ONDAREA
Zaharberritzea eta
mezenasgoa

DOSIERRA
Eskola publiko berria

KULTURA
ELKARTE BIZIA



Urtarrila 2023

EDITORIALA 3

HERRIKO BIZIA 4-5

ONDAREA: Zaharberritzea eta mezenasgoa 6-7

DOSIERRA: Eskola publiko berria elkarrekin egin dezagun 8-9

ELKARTE BIZIA: Hitza elkarte bati: Téléthron, Hurbiletik: Polysports 10-11

KULTURA: Eguberri 12

ELKARBIZITZA: Auzotasun onean izateko arauak, Bereizketa selektibo berria 13

2022, GIBELERA BEHATUZ argazkitan 14-15

ERREGISTRO ZIBILA 16



IDEKITZEKO ORENAK

Arbonako

herriko etxea

10 route du Bourg
64210 Arbona
Tél. 05 59 41 94 66
www.arbonne.fr

Irekitzeko ordutegia

Astelehena 9h - 12h
Asteartea 14h30 - 18h
Asteazkena 9h - 16h
Osteguna 14h30 - 18h
Ostirala 9h - 12h

Argitalpen-zuzendaria

Marie-José Mialocq

Erredakzio Batzordea

Batzordearen komunikazioa

Argazki kredituak

Herriko etxea-Alkateen Elkarte

Azala

Delphine Elhorgak egindako kartela

Inprimaketa eta diseinua

Antza Komunikazio Grafikoa

Kontaktua

communication@arbonne.fr



Arbonar maiteak,

Duela urte bat, garai berean, deia luzatzen nuen denak erantzukizunez jokatzeko Covid 19aren kontra.

Aurten ere, ororen erantzukizunari deia luzatzen diot, energia-gastuak murrizteko gure eguneroko jokamoldeetan.

Herriko Etxearen mailan, herriko eraikinei (Herriko etxea, eskola, jantokia, elkarten gela, futbol-zeilaia) loturiko elektrizitate-gastuei erne egonen gara. Herriko argiei doakienez, gure parkea modernizatua izan da LED motako argiak erabiliz, eta hautetsiek erabaki dute hauek itzaltzea arratseko 23:00etatik goizeko 06:00ak arte, herri barnean salbu.

Gure energia-gastuak murrizten ahalko ditugu, herritarki, ekologikoki eta erantzukizunez jokatzuz.

2022an, Herriko Etxeak lanean jarraitu du, denak elkarrekin ongi bizitzeko helburuarekin. Hainbat obra abiatuak izan dira, besteak beste: Arrangoitze eta Arbona arteko ibilbide eztien aitzina segitzea, Bil-Toki gunearen zaharberritzea (2023ko apirilean irekiko da), materiala erostea (traktorea), herri-bideak erreparatzea.

Herriko agente guziak eskertu nahi ditut, izan daitezela aitzineko ala oraiko, herrizaintza mutualizatua barne, beren eguneroko parte hartzearentzat: gure ekintzen eragile nagusiak dira.

Gure bestak berriz abiatzen dira, elkarre-sareari eta honen boluntarioei esker: milesker beren parte hartzeagatik.

2023ko kontualdiaren aitzinkontua hertsia izanen da, igurikatua den ekonomia egoera zailari begira. Estatuaren eta beste kolektibitateen zuzkidura apaltzei aurre egiteko, mezenasgoko deialdi batek aukera emanen digu gure ondare ohargarria zaharberritzeko proiektuak hein batean finantzatzeko, hala nola eliza, hilaerriak eta Andereseroraenea.

Ikastetxearen eraikitzea, urte berri honetako lehentasuna da, eskolan ongi heltzearen bermea baita.

Egitekoak eta proiektuak ez ditugu eskas. Gure programa leialki jarraitzen dugu, denak elkarrekin ongi bizitzeko helburuarekin. Garapen harmoniatu bati esker, Arbona beti aitzina doa.

Ene aldean ari diren Herriko hautetsiak eskertzen ditut beren ekintza baliosarengatik eta herriko bizian daramatzaten parte hartzearengatik.

Gure elkartasuna berritzen dut Ukrainaren alde, zoritxarrez gerlak hor jarraitzen baitu.

2023. urte on eta zoriontsu bat desiratzen dizuet, zuetariko bakoitzak etorkizun hobe baten mentura izan dezan. Horretarako, hitzordua luzatzen dizuet urtarilaren 20an (ortziralea), 18:30ean, eskolako jantegian, Herriko Etxeko agiantzen kariatara.

Irakurketa ona, Urte Berri on deneri.

Marie José Mialocq
Arbonako Auzapeza

ONGI ETORRI ARBONAR BERRIEI

Duela guti heldu zara Arbonara. Zure herriaz argibide gehiago ukaiteko eta berriak jakiteko:

- Sar zaitez gure webgunean: www.arbonne.fr
- Gure berripaperera harpidetu zaitez
- Lehen hiruhilekoan topaketa momentu goxo bat antolatuko da, zure ezagutzeko gogoia dugu.

Berriak ukaiteko eta berripaperera harpidetzeko: communication@arbonne.fr



Émilie Wersinger, Virginie Albert, Karine Bobillon, Isabelle Barthe

ANTOLAKETA BERRIA HERRIKO ETXEAN

Mugikortasun profesionala herriko etxe baten bizitzaren parte da. Plazerekin hartu dugu zerbitzuen zuzendari nagusi berria, Émilie Wersinger. Herriko Etxeko orkestraburua da eta langileen arduraduna, hautetsien, Herriko Etxeko taldearen eta zure arteko lotura ezinbestekoa.

Karine Bobillon kontularitza eta giza-baliabideen zerbitzuan sartu da. Isabelle Barthe borondate onarekin apairuen banaketa egiten die herriko adinekoei. Virginie Albert zure entzuteko dago harlekuan eta komunikazioan.

Langile berri horiek lanpostua lehiaz betetzen dute eta Herriko Etxeak haien gaitasunak erabiliko ditu bere zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Bi lankidek uzten gaituzte beren lan ibilbidearen segitzeko: Camille Barradasek, komunikazio arduraduna eta ondotik zerbitzuen zuzendari nagusia, eta Bixente Bidegorryk, 11 urtez zerbitzu teknikoaren arduradun izan dena. Milesker haiei beren parte hartzeagatik, andere auzapezak eta Herriko Kontseiluak hoberena desiratzen diete.

ANTOLAKETA BERRIA PARROKIAN

Lionel Landart apez berria atseginekin hartzen dugu; Uhabiako Jondoni Joane Bautista parrokiaren buru izanen da; parrokiak Arrangoitze, Basusarri, Ahetze eta Arbona herriak batzen ditu. Louis le GRELLE apez laguntzaile du. Ongi etorri biei gure herrira.

Haiekin harremanetan jartzeko, Arrangoitzeko apeztean kaustuko dituzu:
presbytere.arcangues@orange.fr

Dominique Sentucq apez jauna diozesara joan da erretreta ongi merezirako. Gilles Béranger Mabounda apez Uztaritzeko parrokiara joan da.



Sentucq Jaun erretorra erretretara joatea



LIBURUEN ERDIAN

Herriko Etxeko zerbitzu teknikoak liburu-ontzi bat eraiki du eta Bil Gune jostalekuaren ondoan kokatu dugu.

Nola eta zertarako erabil liburu-ontzia? Liburuak har edo utz ditzakezu, izenik eman gabe eta edozein tenoretan. Liburu bat utziz edo hartuz, bizi berri bat emanen diozu, eta ingurumena alde eginen.

Liburu-ontziak jendarte lotura laguntzen du, partekatze-ekonomia sustatzen eta desmartxa eko-herritarra garatzen. Irakurraldi-kate informalak sortzen ditu.

JAKITEKOA!

Liburutegiaren aitzinean dokumentuen itzultzeko ontzi bat ezarri da. Mailegatu liburuak itzultzen ahalko dituzu liburutegia irekia delarik edo irekitze tenoreetatik kanpo. Ontziari esker liburuak ez dira gehiago berantean itzuliko.

ADINEKOAK

ASTEBURUETAN ERE

Gero eta galde gehiago baita, adinekoei banatzen zaizkien apairuak egun guzietan bermatuak dira orain. Asteburuetako apairuak ostiraletan banatzen dira.

Oroitz Herriko Etxeak apairuen banaketa GEUZaren bidez egiten duela. Astelehenetik ostiralera, Isabelle Barthelek apairu orekatuak banatzen ditu, Suhari sozietateak kozinatuak. Ez da banaketa zerbitzu soila, apairuen banaketari esker jendarte lotura atxikitzen baita eta adinekoak zaintzen. Herriaren funtsezko eginkizuna da.

Argibideak ukaiteko: mairie@arbonne.fr

ADINEKOENTZAT

Zuen arratsaldeko askariaren kariatara, nahi izan duzue jarduera ludikoen eta sortze josteten inguruan biltzeko parada ukan. Zuen galdeari ihardesteko lanean ari gara.

Nahi ditugu informatikan hasteko edo hobetzeko lantegiak ere plantan ezarri.

Ekimen horietarik batek gogoia pizten baldin badizu edo beste ideiarik baldin baduzu, zatoz Herriko Etxera edo mezu bat igor:

communication@arbonne.fr



ALDE BALIAGARRIA...

ECOWATT, URRITASUN-ENERGETIKOAREN TRESNA

EcoWatt zerbitzuak, partikularrak eta profesionalak laguntzen ditu beren elektrizitate-kontsumoan. Sare elektrikoan dauden tentsioei buruzko berriak ematen ditu.

Kontsumitzaileak elikatze erabilgarri den elektrizitate-maila eta kontsumo-maila denbora errealean kalifikatzen ditu, eskualdeka. Une bakoitzean, indize batzuek herritarrek gidatzen dituzte, jarduera egiteko eta ondorioz elektrizitate-kontsumoa mugatzeko. Beraz, alerta dispositibo batek frantsesei jakinarazten die, elektrizitate-kontsumoa murriztu edo desplazatu behar dituzten aldiak, elektrizitate mozketak saihesteko edo iraupena laburtzeko. www.monecowatt.fr aplikazioa telekarga dezakezu ere.


ONDAREA: Zaharberritzea eta mezenasgoa



GURE ONDAREAREN ZAINTZA

XII. mendeko San Laurens eliza, XVI. mendeko hilarri biribilez inguratua, eta XVII. mendeko Seroraenea monumentu historiko gisa ekarriak dira, eta Arbonako ondare ohargarria osatzen duten arkitektura elementuak dira.

Herriko Etxeak ondare bikain hori zaindu nahi du eta balorizatu, gure herriaren nortasunaren lekuko baita.



ONDAREAREN ZAHARBERRITZEA

Obra franko egin ziren jadanik aitzineko urteetan. Segituko ditugu:

ELIZAN: 51 000 € (BEZa gabe)

- Kanpoa berriz tindatuko da, harriak garbituko
- Berogailuak berriz ezarriko
- Elizako zur guziak tratatuko dira intsektu-pozoiarekin (sakristia, aldarea, zureria eta zoladura)
- Pieta babestuko da (berinaz hetsiko da), biziaren zuhaitza...

SERORAENEAN: 21 000 € (BEZa gabe)

- Teilatua garbituko da
- Gisuz emokatuko da
- Kanpoko leihoak eta argamasak berriz tindatuko dira

ELIZA INGURUKO HILERRIETAN:

63.000 € (BEZa gabe)

- Landareztatuko da
- Bidexketan argiak ezarriko dira
- Bidexka bat berriz egingen da

Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak galdatuko dira KAEZi, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari edo Eskualdeari.



ZERGA ABANTAILAK UKAITEKO ESKUBIDEA

Gure ondare ohargarriaren zaharberritzean parte hartzeko parada bazu. Mezenasgo dispositibo baten kariatara, zerga-administrazioak zure emaitza errezibitzeko eta zerga-ordainagiri bat emateko eskubidea eman digu (enpresei edota partikular mezenasei).

- Partikularrek (ZKoko 200. artikulua) % 66ko zerga-murrizketa ukanen dute, zergapekoaren % 20ra mugatua, eta emaitzaren soberakina 5 urtera erakar daiteke.

Adibidez: 100 € emaitza deklaratzeko 66 €-ko zerga-murrizketa ukanen duzu.

- Enpresek (ZKoko 238 bis artikulua) % 60ko zerga-murrizketa ukanen dute sozietate zergaren gainean edo mozkin zergaren gainean, gehienez negozio zenbatekoaren % 5.

Mezenasgoaren definizioa

obra bati edo pertsona bati eman sostengu materiala denen abantailetan den jardueretarako, hartzaileak ordain zuzenik ukan gabe."



ESKOLA PUBLIKO BERRIA

ZENDAKO ESKOLA BERRIA?

Oraingo eskola hertsia da eta ez da handitzen ahal. Har dezakeen ikasle kopuru mugara heldua da.

Eskola 4 estaitan eraikia da, eta ez du gehiago oraingo eta etorkizuneko eskakizun pedagogikoei ihardesten.

ARTA HANDIREKIN PRESTATU PROIEKTUA

2016az geroztik, Gidaritza Batzorde zabala frankotan bildu da eskola berriaren beharren, neurriaren eta ikaskuntza eta lan guzueen finkatzeko. Batzorde hori hautetsiek, kanpoko parte hartzaileek —hezkuntza ministerioko ikuskaria barne—, eskolako ordezkariak —eskolako zuzendaria barne—, lehen haurtzaroko ordezkariak, burasok eta herriko langileak osatzen dute.

HERRIKO KONTSEILUAREN HIRRU ERABAKI

- 2020ko agorrilaren 18ko erabakia: Obragintza Laguntza

Merkatua PROJEMA sozietateari esleitu zaio,

- 2022ko urtarrilaren 28ko erabakia: obralaritza deialdiaren saridunaren izendatzea: LEIBAR & SEIGNEURIN arkitektura bulegoa (mandataria),

- 2022ko irailaren 20an Herriko Etxeak bilkura bat antolatu zuen saridunak proiektua xeheki esplikatzen saldo handian etorri publikoari.

BILTZAR PUBLIKOA 2022-KO BURUILAREN 20-AN

Herriko etxeak moldatua, baimena eman dio ekipa irabazleari, proiektuaren xehatasunak eman ditzan jendetza handiari.

GASTUA

Bakotzak dakien bezala, altxatzen prezioak, oraiko egunean, hainitz kariatze jasaiten ditu eta hoinbertze arrisku nekez kontrolagarri.

Eskolako konduak ez dute eskapatzerrik eta bermatzen gira antolabideak oficialeekin atxemaiteko prezioen menderatzeko.

Bixtan dena, gure hurratsen ondorioaren kondu emanen daukitzuegu.



PROIEKTU HANDIA 2024KO SARTZERAKO

Gure eskola proiektuak 3 xede ditu:

- Emaiz desberdintasunak ttipitzea aukeren berdintasuna azkartzeko,
- Langileen laneko bizi kalitatea eta elkarlan praktikak azkartzea,
- Ikasleak laguntzea XXI. mendeko herritar bilaka daitezen,

eta bi lan axa segidako inguruan

- Energia eta ekipamendu teknikoak gutiago xahutzea (ikusmolde bioklimatiko eta lehentasuna eraikinaren emaitza termikotant, egurberogailua...),
- Mugikortasun eztea erraztea oinezkoen eta bizikleten helgarritasuna lehenetsiz.





2022ko azaroaren 24an eman eraikitze baimenean badira:

- 7 ikasgela
- 2 atsedeen gela
- 1 motrizitate gela handi denendako
- 2 aterpe handi,
- 1 zuzendaritza bulego,
- 1 irakasle gela,
- 1 gela kanpoko parte hartzaileentzat, burasoentzat...
- 1 gela pribatu langileentzat



URAREN BIDEA: BI JOSTALEKUEN ARTEKO HARI NAGUSIA

Eskola antolatzeko mementoan, paisaia xedea Arbonaren nortasunean bermatu da.

Gunearen topografia erabiliko du uraren kudeaketa proiektuaren abantaila bihurtzeko.

Euri-uren kudeaketa molde ludikoan egingen da eta euska-

rri pedagogikoa bilakatuko ingurune naturalean bermatuz.

Ama eskolako eta lehen mailako jostalekuen artean lotura egingen du ur-bide batek, eta hurrek haren ibilbidea ulertzeko parada ukanen dute.

Ezinbestekoa dugun baliabidea da ura, eta haren balorizazioa molde ludikoan erabil daiteke ttipi-ttipidanik ulertzeko gure ingurumenaren zaintzea herritar eginbidea dela.

Oposizioak dio eskola publiko berrirako eraikitze baimena lehen zikintegi basa omen zen lursailerako galdegin dela. Berehalako auzi prozedura egin dute.



HITZA ELKARTEEI

TÉLÉTHON: EDINA BARTEILS ELKARTEKO LEHENDAKARIAREN HITZA

Arbonako komunitatea berriz ere hor izan da Arbonako Téléthonaren 25. edizioaren kari. Urtero emaitza gehiago bada, eta aurten 11 170.00 €-koa izan da. Bikaina da!



Gure boluntario taldea urtero bezala mobilizatu da lantegiak eta jarduerak proposatzeko asteburu guzian. Haurrendako usaia-ko arratsaldeko askariarekin hasi da herriko plazan, ostiralean kolorezko xingola biribila egin da, eta denei irekia zen quizz batekin segitu.

Larunbat arratsaldean lehenbiziko zinema emanaldia iragan da kontseiluen gelan TOUS EN SCENE filmarekin, eta arratsean denek parte hartu dute Karaoke gualdian! Mexitaliar menua (chili-tiramisu) denek gogoa izan dute.

Elkarteen etxean plantatzen den ongizate gela asteburuko leku bazterrezina bilakatu da: profesional batzuek larunbat eta igandean goxotasun momentuak eskaintzen dizkie parte hartzaile ugari. Herriko Etxea eskertzen dugu herriko gelak presaturik, baita ere asteburu zoragarri horretan parte hartu duten guziak. Gure taldeak boluntario berriei dei egiten die 2023ko Téléthonen parte hartzeko. Zatoz gurekin!

Harremana: arbonne.telethon@gmail.com



NEGUKO PAUSUA ANDERE SERORAENEAN

Lehengo onezko konduen eta topaketaz eta partimenezko sasoin aberatsaren ondoan, "Topaketak" elkarteak hartzen du pausu denbora bat geroko gertakarien moldatzeko.

Ikusketak berritzuliko dire helduden primadera ordu.



HURBILETIK... POLYSPORTS ELKARTEA

HIRU GALDERA EGIN DIZKIOGU NATACHA ZABALETA ELKARTEBURUARI.

Aurkezten diguzu Polysports elkartea?

Polysports 1991n sortu elkartea da, eta orain 59 kide ditu. Haurrendako eta helduendako jarduerak proposatzen ditugu Arbonako Elkartearen Etxean. Polysports elkartearekin helduek Pilates eta Yoga egin dezakete, haurrek edota helduek gitarra ikas dezakete, eta haurrek judoa ere egin. Judo kurtsoak arrakasta handia dute.



Zer dira zuen proiektuak eta gogoak?

Gure xedea da kideei jarduerak proposatzen segitzea Arbonan, elkarte-prezioak atxikiz.

Trabarik ba ote duzue?

Gure elkartean boluntario guttiegi bada. Lau kide baizik ez dira bulegoan, eta ez da beti erraz. Nahi genuke jende gehiago sartzea elkartean. Badugu Facebook orrialde bat, Polysports Arbonne, eta e-postaz ere jar daiteke gurekin harremanetan: polysports.arbonne@gmail.com. Bestalde, oraino piano irakasle baten bila gabiltza partitu den irakaslearen ordezkatzeko. Aurten marrazki eta arte plastiko kurtsoak ez dira egin irakasle faltagatik, baita ere haur gutik izena aman baitzuen. Haurrendako eta helduendako antzerki lantegiak plantan ezarri nahi genituen baina ez da galderik aski izan kurtsoa hasteko.

URTE HONDARREKO BESTAK

Arbonako plazan Eguberriko izaia 2022ko abenduaren 5ean plantatu zen eta urte hondarreko bestei hasiera eman zien.

Abenduaren 11ko merkatuak Eguberriko koloreak zituen eskola publikoko burasoen elkarteari esker. Bizarzuri haurren zerrenden biltzen hasi zen.

Abenduaren 12an, astelehenean, haurren irriak entzun ziren Elkarteen Etxean. Arbonako eskola publikoko eta San Laurendi eskola pribatuko haur guziak han ziren Ama Noelen ikusgarriaz gozatzeko. Momentu irri-garri eta interaktibo horren ondotik, orain usaia bilakatua den arratsaldeko askaria eskaini zuten bi eskoletan Bizarzuri famatuak eta haren laguntzaileak.

Abenduaren 16an, ostiralean, eskola publikoko haurrek aro gaiztoari buru egin zioten euskal kantuen emateko. Plazako izaia apaindu zuten ikasgelan sortu apainketekin.



Olentzero ere etorri zen momentu goxo baten partekatzerara abenduaren 18an, igandean, Arbonako plazan, ttipien eta handien atseginerako.



BIL-TOKIAREN ARRABERRITZEA

Duela bi urtez geroztik osasun-arazoek gatik hetsia zen Biltoki gunea obretan da. Galdezkatuak izan diren elkarte erabiltzaileen beharrei erantzunen die eta etorkizuneko kudeatzaileak tresna eraginkorra, egokitua eta arauen arabera ukanen du eskutan.

2023ko lehen hiruhilabete hondarretik goiti, leku ezin saihestia bilakatuko da, pilotan aritzeko edota jateko edo xingleki, lagunen artean giro atseginetan biltzeko.

AUZOTASUN ONA UKAITEKO

BADIRA ERRESPETZAKOAK DIREN ZENBAIT ARAU

MAKURRAK ETA TRABAK

Ene auzoak errespetatuz ari naiz xitxuketa. Partikularrek xitxuketa edo baratzezaintza obrak harrabotsa egi-ten duten tresnekin egin ditzakete bakarrik:

Astelehenetik ostiralera, 8:30-12:00/ 14:30-19:30

Larunbatetan, 9:00-12:00 / 15:00-19:00 – Igandeetan: 10h00-12h00

Harrabotsa etxean atxikitzen dut. Harrabots oro, hala nola bolumen azkarregia eta trabagarria, zigortua izan daiteke. Harramantza debekatua da bai gauez bai egunez.

Ez dut ene zakurra saingaz uzten. Debekatua da etxe animaliak behin eta berriz oihukatzeraz uztea lasaitasun publikoa trabatzen baldin badute.

GARBITASUNA

Ene hondakinak zikinontzira botatzen ditut Ezin da pentsatu hondakinak lurrera botatzea. Hondakinak eremu publikora botatzea isunaz zigortua izan daiteke.

Ez ditut ene hondakinak nonahi botatzen. Zikinontzi edukiontzi bat betea baldin bada, ez ditut ene hondakinak ondoan uzten, herriko beste edukiontzi batean botatzen ditut.

Ez ditut ene hondakinak erretzen. Hondakin berdeak konpostean edo hondakindegian bota daitezke.

HONDAKINEN BEREIZKETA:

2023KO URTARRILAREN 1AZ GEROZTIK

2023an hondakinaren bereizketa errazten da. Emeki-emeki, etxez etxeko bilketa plantan ezarriko da. Etxe gehienetan 2 ontzi izanen dira: horia estalki eta paper guziak nahas-mahas botatzeko, beste bat grisa, etxe hondakinak botatzeko.

Ezagugailu izenduna ukanen duzu zure ontzien irekitzeko.

Berina da bereiz bereizi ekai bakarra, bereizketa selektibo gunetako usaia edukiontzietan bota behar dira berinazko ontziak.

Arbonan dispositibo berri hori 2023ko larrazkenean ezarriko da plantan. Artean, agindu berriak errespetatzea galdetuz gina zaizu. Ondoko aldizkarian berri gehiago.

L'AVENIR
DU TRI
BEREIZKETAREN
ETORKIZUNA

AUJOURD'HUI SAVIR EGUN



EN 2023 AN



Tous Les
emballages
et papiers
se TRIERONT !
PLASTIKOZKO
ESTALKI ETA
PAPER BEREIZIKO
DIRA!

**2023ko urtarrilaren
1ean, Ipar Euskal Herri
osoan bilketa selekti-
boa urrunago doa.**

Informazio gehiago : 05 59 57 00 00

email: dechets.cotesbasqueadour@communaute-paysbasque.fr • www.communaute-paysbasque.fr biltagarbi.fr



2022 GIBELERA BEHATUZ argazkitan



7



8



10



9



11



12

1. Arbonako bestetako musikariak
2. Euskal bixkotxaren besta parte hartzaileekin
3. 2022ko azaroaren 11ko zeremonia
4. 2022ko irailaren 4ko elkarteen goizalde
5. Adinekoen krakada ARNO MAGOarekin
6. 2022ko azaroaren 11ko Téléthoaren selauru-hustea
7. Zerbitzu teknikoko agente bat mozkitzen ari
8. André ELICAGARAY-en erakusketa Andereseroraenean
9. 2022ko abenduaren 8ko COPIL Mugikortasun tailerra, bizikletaren inguruan
10. Arbonako bestak
11. Bilkura publikoa Eskola berriaren proiektuarendako
12. Haur mezua, plazaro izaiari buruz

ERREGISTRO ZIBILA

SCOTZEAK: 22

Lucie MOUTROUSTEGUY 11/01,
Rebecca LATAUD 25/01,
Jan LISSARDY GIRARD 01/03,
Ana FRICAN 05/03,
Anaya HORVATH 30/03,
Ambre LINGRAND 23/04,
Atlas ROCQUES ÉCOIFFIER 07/05,
Maya LABAT IRIGOYEN 07/06,

Emma ERRAMOUSPE MARTINET 09/06,
Pablo BLANCHARD 10/06,
Uhaitz TELLECHEA 13/07,
Kepa LÉONARD 16/07,
Charlie LAMOTTE 01/08,
Ana ESCALANTE LABADIE 01/08,
Achille GOYENECHE 29/08,
Simao KUFLER 02/09,

Mila DUPLANTIER 12/09,
Léa PIRON 17/09,
Anna GARAT 22/09,
Mérík RODRIGUEZ 04/10,
Maïana DEFOUR CARVALHOSA 19/11,
Adam VILATON 10/12

EZKONTZAK: 14

Dina FAYZRAKHMANOVA eta Aurélien
ARCHAMBAUD,
Debi DAISHER eta Boluwaji ALADE,
Caroline PICHON eta Bernard LINGRAND,
Julie BOUVIER eta Benjamin DELSOL,

Corine CASTELLARIN eta Loic MORIN,
Françoise LANDABOURE eta Patrick LANGUAGE,
Fabienne FLOCH eta Guillaume VOILLAT,
Adrien TOURNEUX eta Geoffrey MEYER,
Alexia BICKERT eta Vincent BODESCOT,

Lauriane LACOUR eta Maxime JADOT,
Claire DEURY eta Pierre-Louis CORNILLEAU,
Pauline SAUNIER eta Jean DELSOL,
Clara DEJOURS eta BÉRASATÉGUI,
Camille THIBIERGE eta Pierre LOUVEL

HERIOTZEAK: 48 zoinetarik 25 adinekoen etxean

LECOMPTE Henri,
DAGUERRE Eusebia,
LECOMPTE Christiane,
RICHARD Liliane,
ITURRIA Léon,
QUENOI Christiane,
ROUGIER Antonia,
DUMONT Marcelle,
PARRA Jacqueline,
LARROUTURE Jean,
PAVÉ Patrick,
DEBERGÉ Madeleine,

LARCEBAL Sylvette,
MENAHEM Haim,
PRUJA André,
ZABALETA Romain,
HONORAT René,
BOLAJUZON Solange,
BLANCO Amélie,
ANORGA Jean-Baptiste,
BLANQUE Adrienne,
RICHOMME Michel,
CAPITAIN Jeanne,
DESCHAMPS Jacques,

DE SERRES Anne,
SAINT-MLEUX Philippe,
RIEUX Paule,
DUGRAND Aramis,
FAVIER Jacqueline,
DORDEINS Eliane,
MOLINIER Laurence,
GACHADOIT AUVERNET Anne,
NOBLE Vincent,
GUTIERREZ Irène,
KUBIN Ladislav,
D'ARCANGUES Hélène,

PROUST Franck,
ERVITI Marie-Françoise,
MAHÉ Patrice,
JEAN Gilberte,
BILLON Claire,
THIERRY Bernadette,
FORTIER-MAIRE Marie-Cécile,
MARCILLOUX Marie,
BERROY Jaime,
LAFITTE Nicole,
LEFORT Odette

HATS BERRI BAT ARBONAN

Arbonar guziei Zorionak opa diz-
kizuegu urte berri honentzat !

Etorkizuna ordezkatzeko dugun
hautetsiek aitzina joko dugu
herriko kontseilu eta komisio
ezberdinetan, hasieratik egin
dugun bezala zuen hitza ozenki
zabalduz.

Aurten ere herriko erronkei kasu
haundiena emanen diegu: ahu-
lenen aterbetzea, laborantzako
lurren eta lur naturalen begira-
tze eraginkorra, uraren kutsadu-
ra, errespetu haundiagoko ibilbi-
deak, euskararen presentziaren
indartzea, tokiko ekonomiaren
garapena zirkuitu laburretan.

Arbona Euskal Herrian omen da. Auzapezak bere artikuluetan, gure kultura eta nortasuna errespetatu behar dela erraiten du
behin eta berrito. Milaka urtetik gaurdaino Euskarak egin du gure nortasuna. Hau gabe ez da Euskal Herrikerik, ez da Arbonarrik.
Hizkuntza politikak Herri guzietan dituzte eramaten, Baionak, Miarritzek, Itsasuk... Arbonak ere bai badu bere hizkuntza poli-
tika. Zoin dea ?

Herri batzuek euskara teknikariak eta langile elebidunak enplegatzen dituzte, zerbitzu ezberdinetan, komunikazioan... eus-
kara bizi dadin. Herriko dokumentuak, afitxak, animazioak antolatuko dituzte bi hizkuntzetan, euskara ere bai bizi dadin
herrian.

Hauteskunde garaian Profession de Foi eta beste traktak Euskaraz eta Frantsesez banatuak izan dira ! Kulturen errespetua-
ren eta elkar bizitzaren itxurakeria ! Bi hizkuntzen, euskara eta frantsesaren berdintasunaren nahikeria erakusteko. Hala da
Arbonan ere bai. Eta hauteskunde biharamunean, ahantzia bezperan egindakoa. Egunero eginez erranen dizugu nor zaren !
Herri guziek dute hizkuntza politika bat. Arbonako Herriko Etxeak ere bai ! Azken urteetan euskararekiko duen harremana,
sinpleki, hutsa izan da ! Besterik ez. Hau ere bai hizkuntza politika da. Beste bat, arrunt kontrakoa. Elebakartasunaren hiz-
kuntz politika da. Eta elabakartasunak beste hizkuntzak hiltzen ditu.

Herriko aldiakaria bi hizkuntzetan agertu da... Itxurakeria ! Korrikan lekukoa eramatea bezala ! Herriko dokumentuak eleba-
karrean egiten direlarik « « Fête du Gateau Basque », « Matinée des Associations », Web gunea, Herriko komunikazio orokorra,
hau da, frantsesez soilik, hizkuntza politika bat defendatzen du Herriko Etxeak, hizkuntza bakar baten politika, frantsesare-
na. Gure aitamekin, euskara hilobiratzen du egunero, ez lore, ez kantu, ez eta mezarik gabe ere, mespretsurik handiengan.
Ez dugu onartzen Herriko Etxeak euskararekiko eta nortasunarekiko duen mespretxua ! Arbonarrek ez dute hau merezi !

(Reste du texte non traduit par l'opposition)